



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

EMF-REN MENDI LASTERKETEN ARAUDIA

2.2. EUSKADIKO MENDI LASTERKETEN KOPA

2.2.1 EMFk antolatzaileekin egindako kontratuan ezarritako baldintzen arabera, hauek antolatuko dituzte Euskadiko Mendi Lasterketen Koparako baliagarriak izango diren probak, araudi hau eta indarrean dauden arau teknikoak betez.

2.2.2 Euskadiko Mendi Lasterketen Koparen barneko proba puntuagarrien kopurua hauxe da: hiru gutxienez eta sei gehienez. Proba horietako bakoitza egun bakarrean egingo da.

2.2.3 Probek bakarkako izaera izango dute. Parte hartzaileek 18 urte izan behar dituzte gutxienez.

2.2.4 Euskadiko Mendi Lasterketen Txapelketan nahiz Euskadiko Mendi Lasterketen Kopan bertan aurreko edizioan kategoria guztietan lehenengo hiru lekuetan sailkatu zirenek ziurtatuta daukate Euskadiko Mendi Lasterketen Kopako proba guztietan parte hartzeko aukera.

2.2.5 Lerroan kokatuta egingo da probetako irteera. Elkarren segidan lerro bat baino gehiago ezarri ahal izango dira, ibilbide bakoitzerako bat, eta/edo sailkapenaren edo lehen postuen arabera ezarri ahal izango dira lerroak.

2.2.6 Euskadiko Mendi Lasterketen Kopan puntuak lortu ahal izateko, partaideek EMFren urte horretako lizentzia izan behar dute.

2.2.7 Beste autonomia erkidegoetako edo atzerriko partaideek beren autonomia erkidegoko federazioak edo beren herrialdeko federazioak emandako kirol-lizentzia izan behar dute, eta erantzukizun zibileko aseguruia kontratatuta dutela eta EMFk eskatzen duen estaldura baliokidea duen istripu-asegurua badutela erakutsi behar dute.

2.2.8 Euskadiko Mendi Lasterketen Koparako, parte hartzaileen artean bi kategoria hauek bereiziko dira:

- EMAKUMEZKOAK: (absolutua, 18 urtetik gorakoak) (beteranoen azpikategoria, 40 urtetik gorakoak)
- GIZONEZKOAK: (absolutua, 18 urtetik gorakoak) (beteranoen azpikategoria, 45 urtetik gorakoak)

Denboraldi osorako kontuan hartuko den adina parte hartzaileak lehiaketa izango den urte horretako abenduaren 31n duena izango da.

2.2.9.- Kategoría bakoitzerako puntuazio sistema:

Euskadiko Mendi Lasterketen Kopako proba bakoitzari "zailtasun koefiziente" bat esleituko zaio, distantzia (kilometroan) eta desnibel positibo metatua (metroan) kontuan hartuta. Koefiziente hori honako eragiketaren emaitza izango da: [distantzia x desnibel positiboa] / 1000. Emaitza beti zenbaki osoa izango da, eta horretarako, hala behar izanez gero, beherantz biribilduko da X'1etik X'5era arte, eta gorantz X'6tik X'9ra arte.

Lasterketa baten puntuazio taula lortzeko, koefizientearen balioa oinarrizko puntuazio taulako puntuen balioari gehituko zaio. Zailtasun koefizientea horrela aplikatuko zaio klasifikazioko postu bakoitzari: 100 puntu + koefizientearen balioa lehenengo sailkatuarentzat; 95 puntu +

koefizientearen balioa bigarrenarentzat; eta horrela egingo da hurrenez hurren 86. postura arte, postu horretan lortzen baita koefizientearen balioa.

Hortik aurrera (87. postutik aurrera) koefizientearen balioari puntu bat kenduko zaio, puntu bakarra lortzen den postura iritsi arte, eta gainerako partaide guztiek ere puntu bakarra lortuko dute.

OINARRIZKO PUNTUAZIO TAULA

1	100 puntu	21	65 puntu	41	45 puntu	61	25 puntu	81	5 puntu
2	95 puntu	22	64 puntu	42	44 puntu	62	24 puntu	82	4 puntu
3	91 puntu	23	63 puntu	43	43 puntu	63	23 puntu	83	3 puntu
4	88 puntu	24	62 puntu	44	42 puntu	64	22 puntu	84	2 puntu
5	86 puntu	25	61 puntu	45	41 puntu	65	21 puntu	85	1 puntu
6	84 puntu	26	60 puntu	46	40 puntu	66	20 puntu	86	Koefizientea
7	82 puntu	27	59 puntu	47	39 puntu	67	19 puntu	87	Koef. ken 1
8	80 puntu	28	58 puntu	48	38 puntu	68	18 puntu	88	Koef. ken 2
9	78 puntu	29	57 puntu	49	37 puntu	69	17 puntu	89	Koef. ken 3
10	76 puntu	30	56 puntu	50	36 puntu	70	16 puntu	90	Koef. ken 4
11	75 puntu	31	55 puntu	51	35 puntu	71	15 puntu	91	Koef. ken 5
12	74 puntu	32	54 puntu	52	34 puntu	72	14 puntu	92	Koef. ken 6
13	73 puntu	33	53 puntu	53	33 puntu	73	13 puntu	93	Koef. ken 7
14	72 puntu	34	52 puntu	54	32 puntu	74	12 puntu	94	Etab.....
15	71 puntu	35	51 puntu	55	31 puntu	75	11 puntu		
16	70 puntu	36	50 puntu	56	30 puntu	76	10 puntu		
17	69 puntu	37	49 puntu	57	29 puntu	77	9 puntu		
18	68 puntu	38	48 puntu	58	28 puntu	78	8 puntu		
19	67 puntu	30	47 puntu	59	27 puntu	79	7 puntu		
20	66 puntu	40	46 puntu	60	26 puntu	80	6 puntu		

Proba bakoitzean antolatzaileek zailtasun koefizientea argitaratu beharko dute euren triptikoetan, karteletan edo webgunean, distantziari eta desnibel positiboari buruzko datuekin batera.

Gainera, sailkapeneko postu bakoitzerako jokoan dauden puntu guztiak jasotzen dituen taula ere emango diete parte hartzaileei.

Epaileek, beharrezkotzat jotzen badute, zailtasun koefizientea alda dezakete, baldin eta ibilbidea aztertu ondoren, antolatzaileek argitaratutako distantzia eta/edo desnibel positiboa eurek jaso dutenekin bat ez datozela erabakitzen badute. Era berean, edozein arrazoiengatik ordezko ibilbidea erabiltzen bada, proba horretako zailtasun koefizientea ibilbidearen ezaugarrietara egokituko da. Epaileek aldaketaren berri eman beharko diete parte hartzaileei proba egunaren aurreko egunean egingo den bileraren aurretik edota bileran bertan.

2.2.10 Euskadiko Mendi Lasterketen Kopan parte hartzeko, lasterketa kopuru hauetan lortu behar dituzte puntuak:

- Euskadiko Mendi Lasterketen Kopak 3 proba baditu, proba horietan guztietan lortutako emaitzak hartuko dira kontuan.
- Euskadiko Mendi Lasterketen Kopak 4 proba baditu, horietatik guztietatik hiru emaitzarik onenak hartuko dira kontuan.
- Euskadiko Mendi Lasterketen Kopak 5 edo 6 proba baditu, guztietatik lau emaitzarik onenak hartuko dira kontuan.
- Bi lehiakideren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, azken lasterketan lortutako emaitzarik onena hartuko da kontuan.

2.2.11 Euskadiko Mendi Lasterketen Kopa amaitzen denean eta azken probako sari banaketa bukatzen denean, 2.2.8 atalean zehaztutako kategorietako txapeldunak, txapeldunordeak eta hirugarren sailkatutakoak izendatuko dira, eta dagozkien garaikurrak, sariak eta diplomak emango zaizkie.

2.3. EUSKADIKO MENDI LASTERKETEN TXAPELKETA

2.3.1 EMFk antolatzaileekin egindako kontratuan ezarritako baldintzen arabera, hauek antolatuko dute Euskadiko Mendi Lasterketen Txapelketa, araudi hau eta indarrean dauden arau teknikoak betez.

2.3.2 Euskadiko Mendi Lasterketen Txapelketan egun bakarreko proba bakarra egingo da, eta bakarkako izaera izango du.

2.3.3 Parte hartzaileek 18 urte izan behar dituzte gutxienez.

2.3.4 Euskadiko Mendi Lasterketen Txapelketan nahiz Euskadiko Mendi Lasterketen Kopan aurreko edizioan kategorია guztietan lehenengo hiru lekuetan sailkatu zirenek ziurtatuta daukate Euskadiko Mendi Lasterketen Txapelketan parte hartzeko aukera.

2.3.5 Lerroan kokatuta egingo da probetako irteera. Elkarren segidan lerro bat baino gehiago ezarri ahal izango dira, ibilbide bakoitzerako bat, eta/edo sailkapenaren, aurretiazko probaren edo lehen postuen arabera ezarri ahal izango dira lerroak.

2.3.6 Euskal Mendizale Federazioaren lizentzia duten parte hartzaileek soilik lor dezakete dagozkien izendapena Euskadiko Mendi Lasterketen Txapelketako sailkapenean; lizentziak lasterketa hasi aurretik emandakoa izan behar du.

2.3.7 Beste autonomia erkidegoetako edo atzerriko partaideek beren autonomia erkidegoko federazioak edo beren herrialdeko federazioak emandako kirol-lizentzia izan behar dute, eta erantzukizun zibileko aseguruia kontratatuta dutela eta EMFk eskatzen duen estaldura baliokidea duen istripu-asegurua badutela erakutsi behar dute. Lizentziak lasterketa hasi aurretik emandakoa izan behar du; proban parte har dezakete, baina ez dute punturik lortuko. Beraz, inoiz ez dira Euskadiko Mendi Lasterketen Txapelketako txapeldunak izango, aipamen hori EMFren lizentzia duten parte hartzaileek soilik lortu ahal izango baitute.

2.3.8 Euskadiko Mendi Lasterketen Txapelketa honetarako, parte hartzaileen artean bi kategoria hauek bereiziko dira:

- EMAKUMEZKOAK: (absolutua, 18 urtetik gorakoak) (beteranoen azpikategoria, 40 urtetik gorakoak)
- GIZONEZKOAK: (absolutua, 18 urtetik gorakoak) (beteranoen azpikategoria, 45 urtetik gorakoak)

Denboraldi osorako kontuan hartuko den adina parte hartzaileak lehiaketa izango den urte horretako abenduaren 31n duena izango da.

2.3.9 Euskadiko Mendi Lasterketen Txapelketa amaitzen denean, 2.3.8 atalean zehaztutako kategorietako txapeldunak, txapeldunordeak eta hirugarren sailkatutakoak izendatuko dira, eta dagozkien garaikurrak, sariak eta diplomak emango zaizkie.

2.4. KLUBEN ARTEKO EUSKADIKO TXAPELKETA.

Klubuen arteko Euskadiko Txapelketan EMFkoak diren klubetako kideek osatutako taldeek soilik parte har dezakete, eta beraz, kirolariek EMFren urte horretako lizentzia izan behar dute, eta lizentziak lasterketa aurretik emandakoa izan behar du, jatorria gorabehera; EMFren urte horretako lizentzia duten eta EMFko kide den klub bateko ordezkariak diren beste autonomia erkidegoetako eta atzerriko kirolariek ere parte hartu ahal izango dute, bai eta puntuatu ere.

- a) Taldeak gutxienez 3 kidez eta gehienez 10 kidez osatuta egongo dira (sexua kontuan hartu gabe), eta gutxienez lasterketa hasi baino 12 ordu lehenagotik klubak ofizialki izena emanda izan behar du.

- b) Taldekako sailkapenean sartzeko, gutxienez talde bereko 3 kidek lortu beharko dituzte puntuak, eta talde bereko 4 kideren puntuaziorik onenak batuko dira gehienez. (Ohar argigarria: lasterketako nondik norakoengatik talde batek gutxienerako 3 kide sailkatzea lortzen ez badu, talde hori ez da sailkapenean agertuko).
- c) Kide bakoitzari probaren koefizientearen arabera emango zaizkio puntuak (2.2.9 puntua, gizonetzkoen sailkapen absolutuan eta emakumezkoen sailkapen absolutuan lortu duen postuaren arabera, kategorien arabera sailkapenak kontuan hartu gabe).
- d) Klub bakoitzetik talde bakar batek soilik eman dezake izena ofizialki, eta talde ofizialetako kide diren partaideek soilik lortuko dituzte puntuak.
- e) Kluben arteko Txapelketarako sailkapen berezia izango da, eta sailkapen horretan klub batek talde baten barnean inskribatutako lasterkariek soilik lortuko dituzte puntuak; lasterketan parte hartzen duten gainerako lasterkariek, klub bat ordezkatzeko duen talde bateko kide gisa parte hartzen ez badute, ez dizkiete puntuak kenduko.
- f) Kluben artean berdinketa gertatzen bada, talde bakoitzeko azken sailkatuaren postua hartuko da kontuan, eta berdinketak jarraitzen badu, azken aurrekoaren sailkapena hartuko da kontuan, eta horrela gainerakoetan.
- g) Izena emateko orduan, txapelketan parte hartu behar duten klubek kluba ordezkatzeko duten kirolarien zerrenda aurkeztuko diote antolatzaileari eta EMFri, eta EMFk horretarako ezarritako inprimakia beteko dute, izena, abizena, lizentzia zenbakia eta jaioteguna zehaztuz. Inprimaki hori klubak egiaztatu behar du, eta klubeko lehendakariaren edo idazkariaren sinadura eta klubeko zigilua izan behar ditu. Puntuaziorik handiena lortzen duen kluba izango da Euskadiko Txapelduna.